

## 2008ko UDAL KIROL ZERBITZUETAKO TASAK.

### **SARRERA.**

Alkateak eta kirol zinegotziak jarduera eta abonuen inguruko tasei buruzko irizpideak markatu dituzte. Hortik aurrera adierazi Kirol teknikariak batzordean landu eta zehazteke zeuden tasen inguruan batzordean proposatu zituen aldaketak txertatu dituela. Ustez aldaketa hauek denak ordenantzak baino ez dituzte osatzen eta ez dute goitik beherako aldaketarik sortarazten.

Aldaketok dira:

- Jardueretako matrikula 18€ partez 17€ kobratzea. Arrazoia da erabiltzaileek etxeetan jasotzen dituzten banketxeetako helbideraketetan 18 €ko abonua eta 18€ matrikula artean bereiztu ahal izatea.
- Udal pilotalekuetako tasetan udal pilotalekua txertatu egiten da. Proposamena da gainontzeko frontoietan bezala Fraizkosuriko frontoian ere alokairu orduak eskaintzea euskal pilotako aldaera guztietan.
- Pilotalekuetako alokairuei dagokionean tasak orduka ipini baino hileko kuota ipintzeko proposamena sartu da. Arrazoia: Erabiltzaile gehienek urte osorako hartzen dute erretserba orduak eta administrazio lanak errazteko hileko kuota bidez kobratzeko proposamena egiten da. Irizpide bera Labegarrietako tenis pistarako aplikatuko da, nahiz eta instalazio honetan erabilerak ikusirik eguneko erretserbarako aukera mantenduko da.
- Eguneko sarrerei dagokionean TALDEETAKO EGUNEKO SARRERA tasa txertatu da, hau iaz ez zegoen.
- Jardueretako atalean tasen ordainketa azpiatalean itxaron zerrenden gaineko aipua egiten da, bi hilean behineko 4 kale egiteko aukeraren azalpena emanez.
- Ordenantza fiskaletan O EPIGRAFEAN Fraizkosuriko udal pilotalekuaren gaineko tasak jasotzen dira. Kirol erretserba tasa horiek K epigrafera ekarri dira zuzenean kirol jardueren antolaketa delako. Gainontzeko epigrafe horretako tasak oholtza muntatzekoak dira eta kirol zerbitzuak ez du ekintza horien gaineko kobrantzarik egiten; beraz, tasa horien ardura ez du hartzen. Itxuraz, kultura teknikariak hala esanda, kulturak ere ez ditu tasa horiek erabiltzen.

**Ordenantzaren K epigrafea horrela geratuko da:**

**KIROL ZERBITZU ETA INSTALAZIOAK.**

1. Epigrafe honen eraginetarako, ulertuko da ERABILTZAILEA dela kirol edo jarduera fisiko bat praktikatzen duena Bergarako Udalaren jabetzako kirol eremuetan edo Bergarako Udalak erabilera hitzartuta duen kirol eremuetan (aurrerantzean kirol instalazioetan).
2. Erabiltzaileak 3 abonua izango ditu aukeran. Aldaera bakoitzak bere zerbitzuak izango ditu.
3. Ordenantza honetako epigrafe honen eraginetarako ondorengo adin tarteak finkatzen dira:

- a. **Adina.** Ordenantza honetako epigrafe honen eraginetarako ondorengo adin tarteak finkatzen dira.

0 urtetik 3ra.	3tik 14ra.	14tik 18ra.	18tik 22ra.	22tik gora.
----------------	------------	-------------	-------------	-------------

- Beraz, adina edukiko da kontuan, espresuki beste irizpide bat aplikatzen dela jasotzen ez bada.
- Tasa kobratuko da hilabete horretan erabiltzaileak duen adinaren arabera.
- Urteak betetzen dituen hilabetetik aurrera, adin berriaren arabera tasa ordaindu beharko du erabiltzaileak.

- b. **Familia.** Abonuaren antolaketarako bi famili hauek trataera berdina izango dute. Ohiko familia (Bi gurasok eta beren seme/alabek osatzen duten familia) eta Guraso bakarrez osatutako familia (Alargun eta monoparentalak).

c. **Gazte ikaslea. GAZTE IKASLEA.** Gazte ikaslea izango da ikasketak egiten ari den eta gainera diru sarrerarik ez duen 18-22 urte bitarterako herritarra. Egoera hau ziurtatzeko herritarrak abonua egiterakoan aurreko urteko errenta aitortzen aurkeztu eta une horretan egiten ari den ikasketen ziurtagiria ekarri beharko du.

d. **Tarifa Soziala.** Tarifa soziala aplikatuko zaie Bergaran erroldatuta egon eta pobrezia egoeretan bizi diren familia unitateei. Egoera hau baloratuko da Eusko Jaurlaritzako urteko aurrekontuetan adierazten direnak eta Ongizate Sailak adieraziz dituenak.

#### **4. KIROL ABONUAK.**

Tasak ondorengoak izango dira, abonua mota, adina eta famili unitate bakoitzeko abonatu kopuruaren arabera.

##### **4.1. BERGARAKO KIROL ABONU ARRUNTA.**

Abonu arruntean dauden zerbitzuak dira:

- Ezarritako ordutegi eta egutegi zehatzetan instalazio hauen erabilera:
- Agorrosingo igerilekuko ontziak, fitness eta erabilera anitzetarako aretoak eta berdegunea. (jarduera antolatzen ez den bitartean).
- Labegarrietako aldagelak eta rokodromoa.
- Beherapenak jarduera eta ikastaroetan.
- Kirol instalazioen erreserban beherapenak eta astebete aurretik erreserba egiteko aukera (erreserbatu daitezkeen kirol instalazioak aurrerago zehazten diren udal pilotalekuak, tenis-pista eta Labegarrietako erabilera anitzeko kantzak dira).
- **Debagoieneko kirol abonuaren barruan sartzen diren eskualdeko beste kiroldegietarako sarrera eskubidea.** Hau da, Arrasateko Musakola kiroldegiko ur eremua, Oñatiko Zubikoa Kiroldegia, Aretxabaletako kirol

etxea eta Eskoriatzako Kiroldegia. Arrasateko Musakola Kiroldegiari dagokionean, abonua egiten denean eta bestelako ezer adierazten ez denean abonatuari automatikoki Eremu Bustiko aldaera zerbitzuak atxikiko zaizkio, nahiz eta aukera duen lehorra edo bustia ateratzeko. Erabiltzailereren batek Lehor Eremuko aldaera atera nahi badu halaxe adierazi beharko du abonua egiten duen unean bertan.

<b>BERGARAKO KIROL ABONU ARRUNTA</b>	<b>Urteko Abonu Arrunta</b>	<b>Urteko Abonu Arrunta Tarifa Sozialarekin</b>	<b>Hileko abonu arruntak</b>	<b>Hileko Abonu Arrunta Tarifa Sozialarekin</b>
<b>0 urtetik 3ra. UME.</b>				
	0 €	0 €	0 €	0 €
<b>3 urtetik 14raino. HAUR.</b>				
Haurra, familiako helduak abonatu direnean (familia monoparentalak barne)	0 €	0 €	0 €	0 €
Haurra, familiako heldu bat abonatu denean.	41,25 €	15,5 €	3,75 €	1,5 €
Haurra, familia unitatean helduak abonatu ez direnean.	82,5 €	33 €	7,5 €	3 €
<b>14 urtetik 18raino. GAZTE.</b>				
Gaztea, familiako helduak abonatu direnean (familia monoparentalak barne)	41,25 €	15,5 €	3,75 €	1,5 €
Gaztea, familiako heldu bat abonatu denean.	66 €	26,4 €	6 €	2,4 €
Gaztea, familia unitatean helduak abonatu ez direnean.	99 €	39,6 €	9 €	3,6 €
<b>GAZTEA IKASLEA ETA DIRU SARRERARIK EZ DUENEAN.</b>				
Gazte ikaslea, familiako helduak abonatu direnean (familia monoparentalak barne)	41,25 €	15,5 €	3,75 €	1,5 €
Gazte ikaslea, familiako heldu bat abonatu denean.	66 €	26,4 €	6 €	2,4 €
Gazte ikaslea, familia unitatean helduak abonatu ez direnean.	99 €	39,6 €	9 €	3,6 €
<b>18tik gora. HELDU.</b>				
	165 €	66 €	15 €	6 €

#### 4.2.BERGARAKO BAINUETXEKO ABONUA.

Abonu honek Bergarako Bainuetxea erabiltzeko baino ez du balioko. Ez zaizkio Abonu Arruntaren zerbitzurik atxikitzen.

<b>BERGARAKO BAINUETXERAKO ABONUA</b>	<b>Urteko Abonua</b>	<b>Urteko Abonua Tarifa Sozialarekin</b>	<b>Hileko abonua</b>	<b>Hileko Abonua Tarifa Sozialarekin</b>
<b>GAZTEA IKASLEA ETA DIRU SARRERARIK EZ DUENEAN.</b>				
Gazte ikaslea, familiako helduak abonatu direnean (familia monoparentalak barne)	27,5 €	11 €	2,5 €	1 €
Gazte ikaslea, familiako heldu bat abonatu denean.	44 €	17,6 €	4 €	1,6 €
Gazte ikaslea, familia unitatean helduak abonatu ez direnean.	66 €	26,4 €	6 €	2,4 €
<b>18tik gora. HELDU.</b>				
	110 €	66 €	10 €	4 €

### 4.3. BERGARAKO KIROL ABONU OSOA.

<b>BERGARAKO KIROL ABONU OSOA</b>	<b>Urteko Abonu Arrunta</b>	<b>Urteko Abonu Arrunta Tarifa Sozialarekin</b>	<b>Hileko abonu arruntak</b>	<b>Hileko Abonu Arrunta Tarifa Sozialarekin</b>
<b>0 urtetik 3ra. UME.</b>				
	0 €	0 €	0 €	0 €
<b>3 urtetik 14raino. HAUR.</b>				
Haurra, familiako helduak abonatu direnean (familia monoparentalak barne)	0 €	0 €	0 €	0 €
Haurra, familiako heldu bat abonatu denean.	49,5 €	19,8 €	4,5 €	1,8 €
Haurra, familia unitatean helduak abonatu ez direnean.	99 €	39,6 €	9 €	3,6 €
<b>14 urtetik 18raino. GAZTE.</b>				
Gaztea, familiako helduak abonatu direnean (familia monoparentalak barne)	49,5 €	19,8 €	4,5 €	1,8 €
Gaztea, familiako heldu bat abonatu denean.	79,2 €	30,8 €	7,2 €	2,8 €
Gaztea, familia unitatean helduak abonatu ez direnean.	118,8 €	47,3 €	10,8 €	4,3 €
<b>GAZTEA IKASLEA ETA DIRU SARRERARIK EZ DUENEAN.</b>				
Gazte ikaslea, familiako helduak abonatu direnean (familia monoparentalak barne)	49,5 €	19,8 €	4,5 €	1,8 €
Gazte ikaslea, familiako heldu bat abonatu denean.	79,2 €	30,8 €	7,2 €	2,8 €
Gazte ikaslea, familia unitatean helduak abonatu ez direnean.	118,8 €	47,30 €	10,8 €	4,3 €
<b>18tik gora. HELDU.</b>				
	198 €	79,2 €	18 €	7,2 €

## 5. EGUNEKO SARRERAK

### EGUNEKO BANAKAKO SARRERA

- Sarrera honek abonu osoko zerbitzu berak aitortzen dizkio erabiltzaileari baina soilik eta bakarrik egun batetarako, beti ere adin talde bakoitzari onartzen zaizkion eremuetarako sarbide mugekin.
- Sarrera horrekin nahi adina aldiz sartu eta irten ahal izango da instalazioetatik egun horretan bertan zehar beti ere salmenta txartela aurkezten bada.
- Tarifak ondorengoak izango dira:

	2008
UMEA. 0 urtetik 3ra.	0 €
HAUR-GAZTE. 3 urtetik 18ra.	2,50 €
HELDU. 18 urtetik gora.	5 €

### EGUNEKO TALDE SARRERA.

- Udal Kirol Zerbitzuari eskaera idatzia egiten dioten entitateei baiezkoa ematen bazaie TALDE SARRERA TARIFA aplikatuko zaie. Sarrera hau eskola, udaleko eta izaera bereziko taldeentzako aplikatu da beti ere kirol zerbitzuaren baimena badute. Horrelakotan 1€ ordainduko dute partaide bakoitzeko Udal Kirol Zerbitzuko kontu korrontean eginiko transferentzia bidez. Taldeak gutxienez 12 pertsonakoa izan behar du, hortik behera ez da talde sarrera aplikatuko.

EGUNEKO TALDE SARRERA Pertsona bakoitzeko kopurua	1 €

## 6. KIROL INSTALAZIOEN ERRETSERBAK.

### 6.1. LABEGARAIETAKO TASAK.

Ondorengo koadroetan jasotako kirol instalazioak erreserbatu ahal izango dira dagozkien tasak ordainduta:

<b>Labegaraietako kiroldegiko udal tenis pista.</b>	<b>Abonatua</b>	<b>Ez abonatua</b>
Ordubete argirik gabe, (orduko).	3,2 €	3,6 €
Ordubete argiarekin, (orduko).	5,5 €	6,1 €
Hilabeteko erretserba (astean ordu bat argirik gabe.)	11,2 €	12,6 €
Hilabeteko erretserba (astean ordu bat argiaz)	19,25 €	21,35 €
<b>Labegaraietako erabilera anitzeko udal pistak.</b>	<b>Abonatua</b>	<b>Ez abonatua</b>
Barruko kantxa osoa. Ordubetea, argiarekin.	25,2 €	28 €
Kanpoko kantxa osoa. Ordubetea, argiarekin.	9 €	10 €
Kanpoko kantxa. Ordubete. Argirik gabe.	6,3 €	7 €
Futbito txapelketa, taldeko.	138 € / Taldea.	
<b>Labegaraietako erabilera anitzeko pista estalia.</b>		
Kirol jarduerak ez diren ekitalditarako.	72,1 € / eguna.	

## 6.2.UDAL PILOTALEKUETAKO TASAK.

Udal pilotalekuetako erreserbak. (hileko).	Abonatua		Ez abonatua	
	Argi gabe	Argiaz	Argi gabe	Argiaz
Elorregiko udal pilotalekua	10,5 €	14,5 €	12,25 €	16,75 €
Basalgoko udal pilotalekua.	10,5 €	Fitxak*	12,25 €	Fitxak*
Zabalotegiko udal pilotalekua eta bere aldagelak.	11,9 €	Fitxak*	14 €	Fitxak*
Osintxuko udal pilotalekua eta bere aldagelak.	11,9 €	16,4 €	14 €	18,5 €
Angiozarreko udal pilotalekua . eta bere aldagelak.	11,9 €	16,4 €	14 €	18,5 €
Fraizkozuriko udal pilotalekua eta bere aldagelak.	11,9 €	16,4 €	14 €	18,5 €
Fraizkozuriko udal pilotalekua. (orduko).	3,9 €	5,4 €	4,6 €	6,16 €

- (\*) Argia fitxekin duten udal pilotalekuetan, 1,5 € ordaindu beharko da fitxa bakoitzeko, abonatua izan edo ez izan.
- Udalak Uberako Guraso Elkartearekin Uberako frontoiaren zesioa bereganatuko balu pilotaleku horretako kudeaketa tasa aldagela eta argia duen beste frontoien tasa bera kobratuko zaie erabiltzaileei.

## 6.3. KIROL EREMUETAN ERRETSERBAK EGITEKO.

Erreserbak egiteko ondorengo arauak aplikatuko dira, udal kirol instalazioen erabilera arautuko duen ordenantza onartzen ez den bitartean:

- 6.3.1. Erreserba egiten den unean ordaindu beharko da tasa.
- 6.3.2. Abonatuak erreserbak astebete lehenago egiteko aukera izango du. Bestelako erabiltzaileek, berriz, bi egun natural lehenago.
- 6.3.3. Egun eta ordu berberetarako aurkeztutako bi eskaeren edo gehiagoren artean, lehentasuna izango du aurretik egin denak.
- 6.3.4. Kirol instalazioak ondorengo jarduera fisiko zehatz hauek burutzeko erreserbatu ahal izango dira:
  - 6.3.4.1. Labegaraietako barruko kantxa: areto futbola, saskibaloia, boleibola, eskubaloia, tenisa eta irristaketa.
  - 6.3.4.2. Labegaraietako kanpoko kantxa: areto futbola, saskibaloia, eskubaloia eta irristaketa.
  - 6.3.4.3. Labegaraietako tenis pista: tenisa.
  - 6.3.4.4. Udal pilotalekuak, euskal pilotako joko aldaeretan eta frontenisean jokatzeko.
- 6.3.5. Beste jarduera fisikoren bat egin nahi bada instalazio horietan, Kirol Zerbitzuari baimena eskatu eta honek baimena idatziz eman beharko du. Baimena emanez gero, goian jasotako tasak ordaindu beharko dira.
- 6.3.6. Jarduera fisikoa ez den jarduera bat burutzeko baimena ere eskatu beharko da Kirol Zerbitzuan eta, baimena ematea erabakiz gero, tasa gisa 72,10 €/eguneko ordaindu beharko da.
- 6.3.7. Nahikoa izango da erreserba eskaera egiten dutenen artean erabiltzaile bakar bat abonatua (abonatu arrunta, izaera sozialekoa edo abonatu federatua soilik) izatea, abonatu tarifa aplikatzeko.
- 6.3.8. Erreserba-eskaerak pertsona bakar batek egin ahal izango ditu.

#### **6.4. KIROL EREMUAK ERRETSERBATZEKO TASATIK SALBUETSITA.**

Tasa horiek ordaintzetik salbuetsita egongo dira ondorengo hauek:

- **ESKOLA KIROLEKO ikasleak.** Hau da, Bergarako Eskola Kirol Kontseiluak onartzen dituen ekintzetako ikasleek DOAKO sarrera izango dute kirol instalazioetara, soilik eta bakarrik, onartutako jardueretan. Hortik kanpo, kasuan kasuko tasa aplikatuko da.
- **BERGARAKO KIROL ENTITATEAK.** Hau da, Bergarako udal kirol instalazioak edota Udalarekin hitzartua dagoen beste instalazioren bat bere entrenamendu eta lehiaketetarako erabiltzen dituzten kirol entitateek DOAKO erabilera izango dute halaxe adierazten zaien baimena ematen zaien jardueretan.

#### **6.5. PREMIA FISIKO, PSIKIKO ETA SENTSORIALAK DITUZTEN PERTSONEKIN LAN EGITEN DUTEN ENTITATEAK.**

Atal honen hasieran aipatzen diren Bergarako entitateek ariketa fisikoaren bidez hainbat urritasun lantzeko kirol instalazioen premian badaude, eskaera aurkeztu beharko diote BERGARAKO KIROL ZERBITZUARI interesaturik dauden instalazioa eskatuz. Eskaera onartzen bada, taldeei ondorengo tasa aplikatuko zaie:

<b>Instalazioak.</b>	<b>€ / orduko</b>
Taldearen igerileku ontzien erabilera orduko eta igeriketa kale bakoitzeko.	6 € /orduko.
Taldearen kantxa erabilera orduko	4 € / orduko.

## 7. JARDUERAK ETA IKASTAROAK.

### 7.1. Definizioak.

Ordenantza honen eraginetarako, jarduera eta ikastaroak ondorengoak direla ulertuko da:

- **Jarduera:** Opor eta jai garaietan izan ezik, erabiltzaile bati eskaintzen zaion jarduera fisiko jakin baten eskaintza, aurrez ezarritako epe zehatz batzuen maiztasunarekin eta begirale baten gidaritzari esker aurrera eramaten dena.
- **Ikastaroa:** Opor eta jai garaietan izan ezik, epe mugatu eta zehatz batean, erabiltzaile bati jarduera zehatz batean trebakuntzarako eta irakaskuntzarako eskaintzen zaion irakas-ikas jarduera.

### 7.2. Tasak.

Ordaindu beharreko tasei dagokionean, bereiztu egingo dira Bergarako kirol abonatuak eta ez abonatuak. Abonatu bezala Bergarako Kirol Zerbitzuko edozein abonatu ulertuko da bainuetxekoa salbu.

UR IKASTAROAK.	IRAUPENA / KOBRAINTZA.	Abonatuak	Ez abonatuak
0-3 urtekoentzako ur ikastaroak.	Mugatua / hiruhilekoa.		
Haur Igeriketa Eskola. Ikastaroak.	Mugatua / hiruhilekoa	36 €	64 €
Helduen igeriketa ikastaroak. (hasiera, hobekuntza eta trebakuntza)	Mugatua / hiruhilekoa.	hiruhilean.	hiruhilean.

<b>LEHORRETAKO JARDUERAK</b>	<b>IRAUPENA eta KOBARRANTZA.</b>	<b>Abonatuak €/hileko.</b>	<b>Ez abonatuak €/hileko.</b>
Pilathes.	Amaigabea / Hilekoa.	12 €	30 €
Areto Txirrinda	Amaigabea / Hilekoa.		
Yoga.	Amaigabea / Hilekoa.		
Aerodance.	Amaigabea / Hilekoa.		
Aquarobik.	Amaigabea / Hilekoa.		
Capoeira.	Amaigabea / Hilekoa.		
Gimnasia terapeutikoa.	Amaigabea / Hilekoa.		
Gazte Batuka.	Amaigabea / Hilekoa.		
Tonifikazioa.	Amaigabea / Hilekoa.		
3. adineko gimnasia.	Amaigabea / Hilekoa.		

<b>AGORROSIN KANPOKO JARDUERAK</b>	<b>IRAUPENA eta KOBARRANTZA.</b>	<b>Abonatuak €/hileko.</b>	<b>Ez abonatuak €/hileko.</b>
Mantentze-gimnasia.	Amaigabea / Hilekoa.	12 €	21 €
Tenis.	Amaigabea / Hilekoa.	12 €	28 €
Irristaketa	Amaigabea / Hilekoa.	12 €	30 €

### **7.3. Matrikula.**

Jardueretan izena ematerakoan 17€-ko matrikula ordaindu beharko dute, Bergarako kirol abonatu izan edo ez izan. Ikastaroetan, berriz ez dute matrikularik ordaindu beharko.

Erabiltzaileari ordaindutako matrikula itzuliko zaio bi kasu hauetan:

- Erabiltzaileak, ekainaren 15a baino lehen eta Agorrosingo idazkaritzan hala komunikatuz, hurrengo ikasturteko irailean jarraitu nahi ez duela adierazten badu.
- Kirol Zerbitzuak jarduera batentzako finkatutako gutxieneko ikasle kopurua lortzen ez bada, jarduera hori bertan behera geratuko da erabiltzaileari matrikula itzuliz.

### **7.4. Tasen ordainketa.**

Jardueretan tasak hileroko ordaindu beharko dira, jarduera bakoitzarentzat ezarritako egutegiaren arabera eta baja eman bitartean.

### **7.5. Itxaron zerrenda eta saioetako asistentzia kontrola.**

Saio bakoitzean erabiltzaileen asistentzia kontrolatuko da. Asistentzia etorrera hau bi hilean 4 kale ez justifikatuena bada erabiltzaileak plaza galduko du lekua itxaron zerrenda dagoen lehenengoari eskainiz.

## 8. KIROL JANTZIAK ETA TRESNAK.

Bergarako udal Kirol Zerbitzuak erabiltzaileen esku ondorengo jantzi eta kirol tresnak jarriko ditu salmentan Agorrosinen.

<b>Kirol Materiala.</b>	<b>€ unitatea.</b>
• Silikonazko igeriketarako txanoak.	4 €
• Emakumezko bainujantziak.	30 €
• Gizonezko bainujantziak.	20 €
• Txankletak.	18 €
• Uretako betaurreko handiak.	15 €
• Uretako betaurreko txikiak.	12 €

## 9. BESTELAKOAK.

Takilletako giltza galdu eta berritzea.	3 €
---	-----

## **10. KIROL TASEN ORDAINKETAK.**

- Hilez hil ordaintzen diren Bergarako **kirol abonua**k, hilabete horretako lehenengo 5 egun naturaletan ordaindu beharko dira.
- Urteko kirol abonua tramitatzeko bide bakarra udaleko kirol zerbitzuko kontu korrontean egindako diru sarrera ordainagiria Agorrosingo atezaintzan aurkeztea izango da.
- Ikastaroak ekintza hasi eta hurrengo hilabeteko lehenbiziko 5 egun naturaletan ordainduko da.
- Kirol jarduera bateko hileko ordainketa, hurrengo hileko lehen 5 egun naturaletan ordainduko da.

Urteko abonua ez diren gainontzeko ordainketak egiteko erak bi dira:

1. Ordainketa kontu korrontean helbideratuz.
  2. Kirol Zerbitzuak emandako kontu korrontean diru-sarrera eginez. Horretarako, erabiltzaileak diru-sarrera egin izanaren ordainagiria aurkeztu beharko du ordainketa bakoitzerako epe tartean. Hala ez balitz, erabiltzaileari ez zaio ez kirol instalazioetan sartzen utziko ezta ikastaro zein jardueretan parte hartzen ere.
- Hil bakoitzeko azken eguna iritsi eta tasa ordaindu gabe badago, lehenik erabiltzaileari baja emango zaio zerbitzu horretatik. Bigarrenez, ordainketa egin izanaren gutuna bidaliko zaio. Azkenik, eta gutuna bidali osteko hilabetera, zorra kobratzeko diru-bilketa exekutiboaren prozedura jarraituko da tasa kobratzeko.
  - Jarduera baten tasa ordaindu ez duelako baja ematen bazaio, matrikula gisa ordaindutakoa ez zaio itzuliko; ezta irail-ekaina denboraldia bukatu baino lehen baja eskatzen badu ere.

## **11. AZKEN XEDAPENA.**

- Epigrafe honetan zehaztu ez denetan, ordenantza fiskalaren zati bateratuan jasotakoa aplikatuko da.
- Ordenantza honetatik sor daitezkeen erabilera zalantzak kirol zerbitzuak garatuko dituen araudietan osatuko dira.